



PABLO MALO
(GIDOIGILEA eta ZUZENDARIA)

Donostian jaioa, “TRES MINUTOS” (1989) eta “NORA” (1994) film laburrak idatzi eta zuzendu zituen, azken honek Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren Bigarren Saria irabaziz. “EL ÁNGEL DE MÁRMOL” film laburrak, besteak beste, San Rokeko (Cadiz) Nazioarteko Zinemaren Asteko lehen saria lortu zuen.

“TÁRTALO EL CÍCLOPE” eta “OLENTZERO, LA LEYENDA DEL PIRINEO” (2002. urtean GOYA sarietarako izendatua) animazio-gidoien ondoren “JARDINES DESHABITADOS” fikziozko film laburra idatzi eta zuzendu zuen, eta Gijongo Nazioarteko Zinemaldiaren Atal Ofizialean estreinatu zenetik, hamaika sari lortu ditu zinemaldi ezberdinetan.

Unax Ugalde, Marisa Paredes, Javier Pereira eta Marta Etura aktoreek interpretatutako “FRÍA SOL DE VERANO” opera primak Donostiako Nazioarteko Zinemaldian hautatu zuten. Baita hamabost sari lortu ere, besteak beste, Zuzendaritza Berri Onenarentzako GOYA saria.

“LA SOMBRA DE NADIE” bere bigarren luzemetraiarekin (José Luís García-Pérez, María Jesús Valdés eta Manuel Morón aktoreekin) Film Onenaren eta Zuzendari Onenaren Sariak irabazi zituen *El Mundo al Cine Vasco* Sarietan, baita gidoiaren izendapena ere.

Atresmedia “HISPANIA” telesaileko kapituluak egin ondoren, “LASA & ZABALA” (2014) filma zuzendu zuen, Unax Ugalderekin eta Francesc Orellarekin, besteak beste. Film hori Donostiako Nazioarteko Zinemaldian estreinatu zen, Sail Ofizialean (lehiaketatik kanpo), eta euskal zinemaren historian ikusle gehien izan dituen filmetako bat bihurtu da. Jaialdi hauetan hautatua izan da: Belfast, Australia, Nantes, Baionako L´Atalante, Argentinako Zinema Politikoaren Nazioarteko Jaialdia FTXOKO, Uruguaiako Giza Eskubideen Jaialdia, Boliviako Zinemaldia edo Manchester Film Festival.

Homofobiari buruzko film labur bat idatzi eta zuzendu zuen “TARDE PARA EL RECREO”, Gasteizko Euskal Zinemaren Astean Publikoaren Saria irabazi zuen.

2020an, Pedro Olearen bizitzari eta lanari buruzko “OLEA... MÁS ALTO!” dokumental-film luzea estreinatzen du.